GABONETAN ERE PRESOAK GOGOAN

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2017ko abendua 178. zenb.

# KALAPUTXI




GABONAK GARAI BATEAN

GERRA AURREKO SALTAKARIXAK

BADATOR TXANTXANGORRI

EUSKARA GURE HERRIAN





# Ainhoa Mugerza

## KIROLAZ BIZI, HAZI ETA IKASI


apain
Gabonetan, Olentzeroren esanetara gaude
Maite duzun horiei gure bonoak oparitzeko,
eta zuretzat ...
gure tratamenduak; estetika kosmetikoa, laserra,
azal berriztea, orbanak laser tratamenduekin, indiba,
fisioterapia, masajeak, mikropigmentazioa, krioterapia, ...
Domingo Ibaibarriaga, 3 behea - 20830 Mutriku - 943 60 46 39 - 608 684 416 - apain@apain.net


Etxea apaintzeko proiektuak
Altzariak
Sukaldeak
Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)
Gabon zorion eta urte berri on!
AROZTEGIA
BARRUETABEÑA Hnos, S.A.
Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA
Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

# Telefonoak

## Osasuna

| | |
|---|---|
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa | 943 60 43 00 |
| DYA zentrala | 943 46 46 22 |
| Mendaroko ospitala | 943 03 28 00 |
| Botikak | |
| Lasuen-Elezgarai | 943 19 50 26 |
| | 626 61 13 92 |
| Lon Apraiz | 943 60 32 50 |
| | 630 05 50 97 |
| Amaia Zalduegi | 669 26 22 01 |
| Hiart Burgoa | 667 33 88 90 |
| Etxeberria (Elgoibar) | 943 74 01 40 |
| Garitaonaindia (Elgoibar) | 943 74 11 77 |
| Yudego (Elgoibar) | 943 74 12 93 |
| Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) | 943 74 12 77 |
| Idoia Lafuente (Eibar) | 943 25 44 10 |

## Udala, zerbitzuak...

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 943 60 32 44 |
| Udaltzaingoa | 943 60 70 48 |
| | 679 16 25 00 |
| Gizarte Ongizatea | 943 19 50 81 |
| Anai Arte | 943 60 34 10 |
| Zaharren Egoitza | 943 60 38 71 |
| Eguneko Zentroa (Deba) | 943 19 23 60 |
| Turismo Bulegoa | 943 60 33 78 |
| Bake epaitegia | 943 60 70 49 |
| Kiroldegia | 943 60 31 75 |
| Liburutegia | 943 60 41 82 |
| Miruaitz pilotalekua | 943 60 41 91 |
| Ur Partzuergoa | 902 30 22 22 |
| Zakarrak eta traste zaharrak | 943 70 07 99 |
| Posta zerbitzua | 943 60 30 44 |

## Irakaskuntza

| | |
|---|---|
| Goizeko Izarra Ikastola | 943 60 36 75 |
| San Miguel Ikastetxea | 943 60 31 95 |
| Mutrikuko Institutua | 943 60 35 45 |
| Udal Euskaltegia | 943 60 37 80 |
| Udal Musika Eskola | 943 60 37 80 |
| Haurreskola publikoa | 943 60 41 19 |

## Garraio zerbitzuak

| | |
|---|---|
| ANSOLA taxia | 638 67 23 83 |
| ANTON taxia | 666 22 19 99 |
| XABI taxia | 656 28 90 26 |
| Lurraldebus | 943 41 52 08 |
| Pesa Autobusak | 902 10 12 10 |
| BizkaiBus | 902 22 22 65 |
| EuskoTren | 902 54 32 10 |
| Loiuko Aireportua | 905 50 50 05 |

## Bestelakoak

| | |
|---|---|
| Parrokia | 943 60 39 87 |
| Bikario etxea | 943 60 39 88 |
| Santa Catalina eleiza | 943 60 32 00 |

# Iritzixa

**Agurtzane Urriolabeitia**

## HIPER-OPARITUAK

Gabon-hilean sartu gara eta honekin batera Olentzero, Sortaldeko Erregeak eta Aita Noel... etxean sartuko zaizkigu; eta aldi berean baita ume hiper-oparituen sindromea ere.

Ondorengo lerroak denontzako hausnarketarako txoko bilakatzea nahiko nuke, gaiak eskuetatik dagoeneko ihes egin digu eta.

Gabonak gainean dauzkagu eta gure gaztetxoak opariekin pentsatzen eta familiakoak "txoratuta" moda-modako erregalua edo azken belaunaldiko katxarro teknologikoa eskuratu nahian; eta zertarako...

Abenduaren 25ean edo/eta urtarrilaren 7an, Afrikako umeen erdiak zoriontsu egiteko moduko jostailu pilla etxeko saloian baztertuta ikusi baietz!

Urtero-urtero xoxa mordoa ateratzen da etxeko kutxetatik gure txikienei opariak eskuratzeko eta ez gara konturatzen epe luzera kalte egiten ari garela. Gaur egunean jostailu berriaren lilurak hamar minutu irauten du, umeak hiper-oparituta ditugulako. Eurak eske hasi aurretik, gurdikada opari pentsatuta ditugu eguberri eta erregeetarako. Aurrez urtebetetze, jaunartze eta abarretan jasoak dituztenak aintzat hartu gabe. Benetako opariaren balorea zer dan, nola ikasiko dute horrela? Zaila benetan!

Natibidade goizean edo Errege biharamonean, umeak paketeak nola zabaltzen dituzten mobilean grabatuko dugu baina gero inor gutxi arrimatuko da jaso dituzten horiekin, helduok eta txikitxoak elkarrekin jolas egitera. Geure eguneroko zereginetan jarraituko dugu, umeekin "kunplitxu" dugulakoan. Baina gaztetxo horiek ez dituzte 100 opari behar, **gure denbora behar dute**. Handi egiten direnean ez dira txikitan izan zituzten zortzi mila oparirekin gogoratuko. Aitarekin, amarekin edo aittona-amonekin igarotako jolas-ordu ederrekin, zihurrenik bai ordea!

Hobe genuke opari xumeagoak eta gutxiago egingo bagenitu eta daukagun denbora librea, mobilaren pantailari begira egon beharrean, gure txikitxoekin inbertituko bagenu. Hori baita aurtengo opari-izarra: Ume eta guraso, elkarrekin, **jolas egiteko denbora!** x




# Lurraldebus autobusak

## Mallabia - MUTRIKU - Ondarroa

**astelehenetik ostiralera**

| Mallabia | Ermua | Eibar | Elgoibar | Mendaro | Deba | **Mutriku** | Ondarroa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6:00 | 6:05 | 6:15 | 6:20 | 6:35 | 6:45 | **6:55** | 7:05 |
| 6:45 | 6:50 | 7:05 | 7:15 | 7:35 | 7:45 | **7:55** | 8:05 |
| egun osoan zehar, ORDURO | | | | | | | |
| 21:25 | 21:30 | 21:45 | 21:55 | 22:10 | 22:20 | **22:30** | 22:40 |
| *Lanegun ostiraletan bakarrik* | | | | | | | |
| *22:05* | *22:10* | *22:15* | *22:20* | *22:30* | *22:35* | ***22:40*** | *22:50* |

*Ez dira Mendaroko Ospitaletik pasatzen. Ez dira Deban sartzen; geltokia, Urazamendik auzoan.*

**larunbatak**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6:45 | 6:50 | 7:05 | 7:15 | 7:35 | 7:45 | **7:55** | 8:05 |
| egun osoan zehar, ORDURO | | | | | | | |
| 21:45 | 21:50 | 22:00 | 22:15 | 22:35 | 22:45 | **22:55** | 23:05 |

**jai egunak**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7:45 | 7:50 | 8:05 | 8:15 | 8:35 | 8:45 | **8:55** | 9:05 |
| egun osoan zehar, ORDURO | | | | | | | |
| 19:45 | 19:50 | 20:00 | 20:15 | 20:35 | 20:45 | **20:55** | 21:05 |

**GAUEZ lanegun ostiraletan**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 23:55 | 0:00 | 0:05 | 0:15 | 0:20 | **0:25** | 0:35 |

**GAUEZ larunbatetan**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 0:40 | 0:45 | 0:50 | 1:00 | 1:05 | **1:10** | 1:15 |

Mutrikun: **3:10, 5:10, 6:10**

## Ondarroa - MUTRIKU - Mallabia

**astelehenetik ostiralera**

| Ondarroa | **Mutriku** | Deba | Mendaro | Elgoibar | Eibar | Ermua | Mallabia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7:10 | **7:15** | 7:30 | 7:50 | 8:00 | 8:15 | 8:25 | 8:30 |
| egun osoan zehar, ORDURO | | | | | | | |
| 21:20 | **21:25** | 21:40 | 22:05 | 22:15 | 22:30 | 22:40 | 22:45 |
| *22:10* | ***22:15*** | *22:20* | *22:25* | *22:35* | *22:45* | | |
| *22:40* | ***22:45*** | *22:50* | *22:55* | *23:05* | *23:15* | | |

**larunbatak**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7:10 | **7:15** | 7:30 | 7:50 | 8:00 | 8:15 | 8:25 | 8:30 |
| egun osoan zehar, ORDURO | | | | | | | |
| 20:10 | **20:15** | 20:30 | 20:45 | 20:55 | 21:10 | 21:20 | 21:25 |
| 21:20 | ***21:25*** | 21:40 | 22:05 | 22:15 | 22:30 | 22:40 | |
| *22:10* | ***22:15*** | *22:20* | *22:25* | *22:35* | *22:45* | 22:55 | |

**jai egunak**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8:10 | **8:15** | 8:30 | 8:45 | 8:55 | 9:10 | 9:20 | 9:25 |
| egun osoan zehar, ORDURO | | | | | | | |
| 20:10 | **20:15** | 20:30 | 20:45 | 20:55 | 21:10 | 21:20 | 21:25 |
| 21:20 | **21:25** | 21:40 | 22:05 | 22:15 | 22:30 | 22:40 | |

**GAUEZ lanegun ostiraletan**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 23:15 | **23:25** | 23:20 | 23:25 | 23:35 | 23:45 | 23:55 | |
| 1:05 | **1:10** | 1:15 | 1:20 | 1:30: | 1:40 | 1:45 | |

**GAUEZ larunbatetan**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 23:15 | **23:25** | 23:20 | 23:25 | 23:35 | 23:45 | 23:55 | |
| 23:45 | **23:55** | 0:00 | 0:05 | 0:15 | 0:20 | 0:25 | |

Mutrikutik: **1:55, 3:55, 5:55**

## Ondarroa - MUTRIKU - Soraluze

**astelehenetik ostiralera**

| Ondarroa | **Mutriku** | Deba | Mendaro | Elgoibar | Soraluze |
|---|---|---|---|---|---|
| 8:40 | **8:45** | 9:00 | 9:15 | 9:25 | 9:40 |
| Mutrikun: **10:45, 12:45, 14:45, 17:45, 19:45, 21:45** | | | | | |
| Mendaron: 11:15, 13:15, 15:15, 18:15, 20:15, 22:15 | | | | | |

**larunbatak eta jai egunak**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *9:40* | ***9:45*** | *10:00* | *10:15* | *10:25* | *10:40* |
| *larunbatetan bakarrik* | | | | | |
| 11:40 | **11:45** | 12:00 | 12:15 | 12:25 | 12:40 |
| Mutrikun: **13:45, 17:45, 19:45, 21:45** | | | | | |
| Mendaron: 14:15, 18:15, 20:15, 22:15 | | | | | |

## Soraluze - MUTRIKU - Ondarroa

**astelehenetik ostiralera**

| Soraluze | Elgoibar | Mendaro | Deba | **Mutriku** | Ondarroa |
|---|---|---|---|---|---|
| 7:40 | 7:45 | 8:00 | 8:10 | **8:20** | 8:30 |
| Mendaron: 10:00, 12:00, 14:00, 17:00, 19:00, 21:00 | | | | | |
| Mutrikun: **10:20, 12:20, 14:20, 17:20, 19:20, 21:20** | | | | | |

**larunbatak eta jai egunak**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *8:40* | *8:45* | *9:00* | *9:10* | ***9:20*** | *9:30* |
| *larunbatetan bakarrik* | | | | | |
| 10:40 | 10:45 | 11:00 | 11:10 | **11:20** | 11:30 |
| Mendaron: 13:00, 17:00, 19:00, 21:00 | | | | | |
| Mutrikun: **13:20, 17:20, 19:20, 21:20** | | | | | |

## MUTRIKU - Zumaia

**astelehenetik ostiralera**

| Ondarroa | **MUTRIKU** | Deba heldu | Deba irten | Itziar | Zumaia |
|---|---|---|---|---|---|
| 6:20 | **6:25** | 6:40 | 6:45 | 6:55 | 7:10 |
| | **11:00** | 11:15 | 11:45 | 11:55 | 12:10 |
| Mutrikutik: **13:25, 16:25, 18:25** | | | | | |

**larunbatak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **9:25** | 9:40 | 9:45 | 9:55 | 10:10 |
| Mutrikutik: **12:25, 14:25, 16:25, 18:25, 20:25** | | | | |

**jai egunak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **10:25** | 10:40 | 10:45 | 10:55 | 11:10 |
| Mutrikutik: **12:25, 15:25, 17:25, 19:25** | | | | |

## Zumaia - MUTRIKU

**astelehenetik ostiralera**

| Zumaia | Itziar | Deba heldu | Deba irten | **MUTRIKU** |
|---|---|---|---|---|
| 9:10 | 9:25 | 9:40 | 10:15 | **10:25** |
| Zumaiatik: 12:10, 15:10, 17:10, 20:10 | | | | |

**larunbatak eta jai egunak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 11:10 | 11:25 | 11:40 | 12:15 | **12:25** |
| Zumaiatik larunbata: 13:10, 15:10, 17:10, 19:10, 22:10 | | | | |
| Zumaiatik igandeak: 14:10, 16:10, 18:10 | | | | |

## Lekeitio - MUTRIKU - Donostia

**astelehenetik ostiralera**

| Lekeitio | Ondarroa | Mutriku | Deba | Itziar | Zarautz* | EHU | Donostia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6:15 | 6:40 | **6:45** | 6:55 | 7:05 | 7:30 | 7:45 | 8:00 |
| 9:50 | 10:15 | **10:20** | 10:30 | 10:40 | 11:05 | | 11:30 |
| 12:50 | 13:15 | **13:20** | 13:30 | 13:40 | 14:05 | | 14:30 |
| | | | 16:30 | 16:40 | 17:05 | | 17:30 |
| 17:50 | 18:15 | **18:20** | 18:30 | 18:40 | 19:05 | | 19:30 |
| 20:00 | 20:25 | **20:30** | 20:40 | | | | |

**larunbatak eta jai egunak**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:25 | **8:30** | 8:40 | 8:50 | 9:15 | | 9:40 |
| 12:30 | 12:55 | **13:00** | 13:10 | 13:20 | 13:45 | | 14:10 |
| 17:00 | 17:25 | **17:30** | 17:40 | 17:50 | 18:15 | | 18:40 |
| 19:00 | 19:25 | **19:30** | 19:40 | 19:50 | 20:15 | | 20:40 |

## Donostia - MUTRIKU - Lekeitio

**astelehenetik ostiralera**

| Donostia | EHU | Zarautz* | Itziar | Deba | **Mutriku** | Ondarroa | Lekeitio |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8:00 | | 8:20 | 8:30 | 8:40 | **8:50** | 9:00 | 9:35 |
| 11:00 | | 11:20 | 11:30 | 11:40 | **11:50** | 12:00 | 12:35 |
| 14:30 | 14:45 | 15:00 | 15:10 | 15:20 | **15:30** | 15:40 | 16:15 |
| 18:00 | | 18:20 | 18:30 | 18:40 | **18:50** | 19:00 | 19:35 |
| 20:30 | | 20:50 | 21:00 | 21:10 | **21:20** | 21:30 | 22:05 |

*Zarautz: eskaripeko geltokia - 900 234 555 / **EHU Lanegunetan

**larunbatak eta jai egunak**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 10:30 | | 10:50 | 11:05 | 11:15 | **11:25** | 11:30 | 12:05 |
| 14:30 | | 14:50 | 15:05 | 15:15 | **15:25** | 15:30 | 16:05 |
| 17:00 | | 17:20 | 17:35 | 17:45 | **17:55** | 18:00 | 18:35 |
| 20:30 | | 20:50 | 21:05 | 21:15 | **21:25** | 21:30 | 21:35 |
| 21:00 | | 21:20 | 21:35 | 21:45 | **21:55** | 22:00 | 22:35 |
| Igandeetan | | | | Larunbatetan | | | |

# Bizkaibus

## ONDARROA - BILBO

**astelehenetik larunbatera**

| | lehena | azkena |
|---|---|---|
| A3916 Ermuatik | 5:40 | 19:40 |
| **Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25** | | |
| A3915 Durangotik | 6:10 | 20:10 |
| **jai egunak** | | |
| A3916 Ermuatik | 6:40 | 20:40 |
| A3915 Durangotik | 7:10 | 20:10 |

## BILBO - ONDARROA

**astelehenetik larunbatera**

| | lehena | azkena |
|---|---|---|
| A3916 Ermuatik | 7:10 | 22:10 |
| **Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10** | | |
| A3915 Durangotik | 7:40 | 21:40 |
| **jai egunak** | | |
| A3916 Ermuatik | 8:10 | 22:10 |
| A3915 Durangotik | 8:40 | 21:40 |

# EuskoTren trenak

## Donostia - DEBA - Bilbo

| | Lehena A-O | Lehena L-J | Azkena egunero |
|---|---|---|---|
| Donostia | 5:50 | 7:50 | 20:50 |
| Errekalde | 5:59 | 7:59 | 20:59 |
| Orio | 6:14 | 8:14 | 21:14 |
| Zarautz | 6:20 | 8:20 | 21:20 |
| Zumaia | 6:29 | 8:29 | 21:29 |
| **DEBA** | **6:43** | **8:43** | **21:43** |
| Mendaro | 6:52 | 8:52 | 21:52 |
| Elgoibar | 7:01 | 9:01 | 22:01 |
| Eibar | 7:11 | 9:11 | 22:11 |
| Bilbo | 8:20 | 10:20 | 23:20 |

## Bilbo - DEBA - Donostia

| | Lehena A-O | Lehena L-J | Azkena egunero |
|---|---|---|---|
| Bilbo | | 7:00 | 20:00 |
| Eibar | 6:14 | 7:14 | 21:14 |
| Elgoibar | 6:24 | 7:24 | 21:24 |
| Mendaro | 6:33 | 7:33 | 21:33 |
| **DEBA** | **6:44** | **7:44** | **21:44** |
| Zumaia | 7:00 | 8:00 | 22:00 |
| Zarautz | 7:08 | 8:08 | 22:08 |
| Orio | 7:15 | 8:15 | 22:15 |
| Errekalde | 7:29 | 9:29 | 22:29 |
| Donostia | 7:38 | 9:38 | 22:38 |

www.lurraldebus.eus
902 300 340

www.euskotren.eus
902 543 210

www.bizkaia.eus/bizkaibus
902 222 265

**MOTXILA BETE BUELTAN**

Badijua 2017xa. Akordatzen nai nerabezaruan atxonak eta amonak zela esaten zien: “aprobetxau gaztia zeala, urtiak gero konturau gabe pasatzen dia ta! Eta ez laga bixarko gaur eiñ ahal dezuna”. Eta oaindik gaztia naien arren, konturatzen nijua arrazoirik etzakuela falta, azkar pasatzen da denboria, eta urte hau ere holaxe jun da, azkar. “Señale ona!” Batzuk esango deue.

Urte motza izan arren, askoako eman deu urtiak. Hausnarketa asko ein ditxut urte hontan honen inguruan. Uztail hasieran, Palestina juteko aukeria euki noan brigadista bezela, hemengo errealidadia bertan plazaratzeko eta bertakua lehen eskutik bizi ahal izateko. Buruai buelta asko eman eta gero, nere burua prest ikusi noan han topauko noanai aurre etxeko, aurrez argi eukitxa ikusiko noana gogorra izango zala. Behin berta allauta, eta bertako pertsonakin hartu-emanetan eonda, konturau nitzan egunerokotasuna zela bizi deuen eurak eta zelako garrantzixa ematen dixuen familixai, lagunai, bikotiai... fiñian, pertsonai. Berriz atxonak eta amonak esandakua burura etorri zaten. Palestinarrak oso argi dake euran bizitziak zenbateko balixua dakan munduan ikupegitxik, hutsan hurrengua, eta horretxio, hain zuzen ere, emateixue dakan baloria. Egunero egunero, Israeleko gobernu sionistiak euran lurraldian aplikautako apharteid egoeriai aurre ein bihar dixue, jakinda injustizia honen aurrian munduak bestaldea beirau eta, gaiñea, gobernu hau babestu eta palestinarran kontrako gerra hau finantziatzen doala.

Enai izango ni diskurtso paternalistan bultzatzaillia, oso argi dakat Palestinako herrixak bizi doan egoeria zerrek bultzautakua dan, hain zuzen ideia eta proiektu politiko bat munduan zabaldu eta estrategikoki oso lurralde aberatsa dalako bizi deu bizi doan egoeria. Honen inguruan eukal herritxarrok ere asko dakigu zoritxarrez. Eta bertan ein gendun lagun palestinar batek esan ziguna ekarriko det gogoa: ”guk palestinarrok, oso argi dakau eztakaula etorkizunik, sufrimendura kondenauta goz eta eozein momentutan erailko gaitxue. Baiña ez ahaztu, Palestina gaizki dauan bitxartian, mundua ere gaizki eongo dala. Guk bizi deuna, mundu inperialistian isla bat besteik ezta”.

Eta ezaututako beste emakume batek esandakua: “ezin izango diot iñoiz eskerrak eman Israeli, nere bikotia, familixa... hil dielako, baina eurai esker konturau nai zelako indartsua naien eta zenbat balixo deten”. Duintasunan eredu garbixenak diala erakutsi ziguten. Holako hausnarketa asko ekarri ditxut bueltan motxilan eta beste betaurreko batzukin ikusten det oain mundua eta bizitzia, hortako ere balixo izan ditx biaje honek. Zoritxarrez gaiñea, ikuspegi hau oaindik eta gehixo indartu zan, Abuztuan, inguruko pertsona bat jun zakunian. Gure herrixak bizi doan gatazkian ondorixoz, parte aktibo geanok pertsona asko eta asko ezautzen ditxugu bidian eta garrantzitsu bihurtzen dia geu konturau gabe. Palestina abiatu baino lenuo beataz agurtu nitzan, jakin gabe azkeneko aldiz eta betirako izango zala agur hau. Hain zuzen, hola bizi deu Palestinak egunerokotasuna, egunero-egunero ingurukuak agurtzen, bixarko egunik eongo dan jakin gabe.

**Maider Lazkano Iturrino**




*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira:
**Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku** edo internet bidez, **kalaputxi2001@gmail.com**

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
**Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393**
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com**
Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Sexuenea, Bai Txo!, EMA, Txantxangorri, Mutriku Zero Zabor**.
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

**Mutrikuko Udala** Gipuzkoako Foru Aldundia

# BESTELAKOAK ZIREN GABONAK

URTETXO BATZUK EGIN DITUGU ATZERA, ORDUKO MUTRIKUARREK GABONAK NOLAKO GIROAN BIZI ZITUZTEN JAKITEKO, ETA HERRIKO KRONIKAK BETETZEN ZITUZTEN HERRITAR BATZUEK IDATZITAKO LANAK DAKARTZAGU GUSTUKO IZANGO DITUZUELAKOAN.


Euzkadi
Apartado de Correos. 234

## MOTRIKO

(EUZKADI 1932-01-07)

**URTE BERRI ON**

Urte berria ondo igarotzia opa diet irakurle, ta mutrikuar abertzale gustia zuri ere bai "Lauxeta".

**ERREGALUAK**

Urtero gogoratzen dira gure txoko onetzaz Meltxor, Kaxpar, Baltazar errege ospetsu ta aberatsak; baña Errekonde! Ainbat urtian gure erregaluak ekartzen ibilli oidan "Joxekutx" gaxo dago aspaldian; Galeno´ren Ikutzatzeko almazenak beya jo, ta, nun ustu ainbat tresna… Beriala "Dolores katxerua" eta "Tirrin"… agertu dira. Or daukazue "Joxe Ollokoren" "Furruntzi"´ko almazena, ta ara, zer ustu degun.

-Udalari, Ikurrin berri bat.
-Alkatea´ri, Gau txoriak ixiltzeko multa paperak.
-Batzokia´ri, Areto aundi bat.
-Karlistei, Banco Basko´ren erretulua
-F.A.B.´ri. 5.000 peseta, eta bagoe bat erropa.
-Kopradixai lomala garbitzeko "Euskal Erria" ontzia.
-Itxas kabriai, Pintxo´ren zapatak, Azkoitira joateko.
-Errepublikanoei, Kaja bat Carabiñeros beteta.
-Joxe Mari´ri, Gogo jarduneko liburua, ta Errosaixo bat.
-Zumalabe´ri, Jazz-ban, eta pandero bat.
-Galarraga´ri, "El asombro del mundo" deritzaion liburua.
-Martin txiki´ri, Fox-tro dantzatzeko organillo bat.
-Orue´ri, Pasaporte bat, Cantalapiedra´ko.
-Odriozola anaiai, Garage aundi bat egiteko lurrak.
-Txomin´i, Pillarmonika.
-Nikaxio´ri, Aberri´a andria.
-Takolo´ri, Deba´ko Andonegitarren bufandia.
-Joxe Austiñi, Rascacielos batzuk egiteko enkargua.
-Ametzai, Tirantiak.

**OLENTZERO**

Antziñako oitura zarrak berpiztu bear dirala, ta, urte azkenian kalerik kale Olentzero´rekin ibilli ziran Batzoki´ko gaste aldra ederra.

Ederki gasteak jarrai orrelaxe urte askuan.

**Aberri** (Angel Osoro)


ARGIA
ASTEROKOA
Avenida, 32 – Urutizkiña 12505

## GABON AURREA

(ARGIA 1935-12-22)

Gabon aurrean gera. Laño beltzez astaldua ageri da ortzea; mendi muturrak elurrezko txapel banakin daude…

Guazen erriruntz; salostetxe edo dendetako ikustoki (escaparate) guztiak dotore apainduak; gozoki pilla ederrik ikusten gaude. A zer janaldia egingo genuken!

Gaizki egin dute, orrekin; ez luke zori egin bear. Orrekin, bekaitza besterik ez da sortzen da.

Lengo batean, saletxe oietako batek onela esan zuan:

— Aldi onetan behintzat, lan bat gutxiago izaten degu, leyarrak garbitzen: mingañez ederki miaztuak izaten bai ditugu.

— Kontxo! —esan nion— mesede egilleak ere ba dituzute, orduan?

— Bai zera! —erantzun zidan— leyarragatik ibiltzen al dira, ba…! Barreneko gozopillaren usaien baizik?...

Gañera —zion— alde batera, parrez lertutzen egoten gera, barruan, oiek aritzen diradenean.

— ¿Zer ba?

— ¿Zer? Esango dizkizut; lengo egun batean entzun nuan ipuia.

Beti bezela, leio aurrean ume pilla aundi bat ikusten genuan; beldur giñen ala ere, alkarri bultzaka zebiltzanez, bat edo batek leyarra autsiko ote zuan, ta au ezer ez dala, bere puskaz burua irikiko ote zioen.

Esan bezela, an zebiltzaten, batek au, besteak ori…, umeen gauzak oi diranez… Alako batean, guztien artetik

NT2 PNEUMATIKOAK ETA MANTENTZE-LANAK
BIZKOR AUTOAK
Continental · GOODYEAR · VREDESTEIN · DUNLOP · KUMHO TYRE
astelehenetik ostiralera 9:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Antzomendi industrialdea · 943 607 182 · www.nt2.es


KALBAIXO JATETXEA
Tel. 943 60 32 56
MUTRIKU

begira zer esan zuan:
"I, Jaun-Goikoak egin leikek, ba, oraintxe mirari bat"; ta beste guztiak ao zabalik eta ortzetan ura zutela erantzun zioten: ¿Zeeeer?
¡Zera…! —erantzun zien—, aurreko aldian dauzkagun gozoki pilla oiek, gu danon artean banatu".
— Egia dek esan zion batek; baño… ze arraio! ala izan eskero, gaitz egingo ligutek eta…
— ¿Gaitz? erantzun omen zun beste batek, naiko gaitz guk oriek jatea… Parrez egon omen ziran izketaldi areri.
— Baiño, ze arraio! Gabonetan jango al ditugu.
Amak esan ditanez, orduan erosiko omen ditu oiek danak.
— Errekoooondo! —bukatu omen zuan batek— orduan neu ere zuenera natorrek egun orretan.
Ni ere etorriko al naiz, mutiko?

**Kai Alde** (Patxi Lizardi)




## MOTRIKU´TIK

(EGUNA, 1937-01-10)

Ondarruko guda-oinaldetik, gudari batek faxisten erpetatik iges egin eta Lekeitio'rakoa artu zuala jakin nuenean, aren bila Lekeitio'ra jakin-miñez joan nintzan. Ibil-ibilka jardun ondoren, Batzokian aurkitu nuan dana-dalako gudaria. Kontuak-kontu, berriketak apur bat luzatu ondoren. Motriku'tiko berririk bai aldezu? Galde egin nion.
—Motriku´ko berriak? Eta ona emen arek neri edestatutakoak.
"Aberri" euzkel-idazle eta abertzale jator, sutsu eta langilea, erreketeak erail zutela jakin dutenetik, itunik dagoz Motriku´n guztiak, abertzale eta abertzale ez diranak. Eta nik bitartean auxe nesan neure kolkorako: Jaungoikuak asketzi bekie aura erail duten txerren-semiai eta Bereganatu dagiala geure adizkide maitiaren gogoa.
Berriketak berriketa-gain, errege-besuzak dakarz geure gudariak arlora eta ona emen nik gogoan artutakoak:
-San Martine'ri, Demostenes eta Mella´ren itzaldiak, andik zati batzuk artu, apur bat borobildu eta txoniztokitik moru belz eta moru gorriai "sekulako diskursuak" erdera zaratatzuz zuzentzeko. (Jaunari eskerrak urruti gagoz iñoiz berak aitatutako moro zuriok).
-Don Juan'eri, organu berriaren garurrean jartzeko Gil Robles'en antzeko "Pepona" bat.
-Don Kintin'eri, erreketiak erail dituzten apaiz abertzalien argazkiak eta hainbeste maite daben dirua gordetzeko "caja fuerte" bat,
-San Miguel'eko lekaime erdelzaliai an dauden atso-agure euzkeldunai agurtza donea eta otoitzak euzkeraz esan-erasoteko goimaitasunaren pizka bat.
-Txarlot'eri, galtzuzko kapela berri bat.
-Txorero'ri, Angel Eizagirreren izenez eskumiñik sutzuenak.
-Luz Busto eta Txanbolin'go Ixabel'eri, "sargento galoiekin uniformiak"
-Justa eta Dominga'ri belarritxako pare bana.
-Villa Dioni'ko Pantxito'ri, Santanderren etxiak euki dituan tokian, egiten ari diran "Avenida"´ren argakia.
-Buenos Aires'ko Maria'ri karlistak euki dautzen maitasunagatik, mila duroko txeke bat.
-Pedro Manuel'eri, "Nazareno" bereganatu arteko Job'en eruapena.
-Zapata-Zuri'ri, Kofradiya'ko bazkide izateko erea.
-Don Pelayo'ri, "Roll-Roice" belbil bat.
-Fondaberri'ri, don Pelayo'n esker ona.
-Artajonako gozo egintzaileari, bere errirako pasaportia
-Itxas-Kabria'neko neska zarrari, "balkoietan" ipintzeko erkal ikurrinak.
-Ametza zarrari, oin ikusten daben dana edestuko gogomena.
-Ametza gaztiari, Agirre'na egon zan laukian sartzeko Franco'ren argazkia.
-Txeke'ri, faxista'rentzat hogei miloe ikur egiteko agindua.
-Jazinto Erronda'ri, napar ardau zarrez betetako "garrafoia".
-Takolo'ri, Jaimentxu´ren agindupian egoteko "libra bat pazientzia".
-Don Jaimentxu'ri, Villadiegoko "titularra".
-Ruiz de Oña'txuri, pipermiña baretzeko osakaia.
-Pertxal'eri, txistera eta bastoi bat, Gaitan'txukin "Congreso"ra juateko.
-Blas Ulazia'ri, nasai bizitzeko Abaitua'ren etxia.
-Itxas-aurre'ri, salberiaren espiñak.
-Pako Egurbide´ri, bi eratako kartak.

Onetantxe amaitu neban Ondarru´tik iges egindako gudariarekin euki nuan berriketa aldia. Geroxiago beste bide batetik Erregiok urreratxuago jaurti dituzten besuzen berri ere izan det. Ona emen batzurenak:
-Antonino'ri, berak asko maite daben ori-gorri margodun ikurrin eder bat.
-Fausto'ri, Mendaro'ra dijoanerako zaldi zuri bat.
-Burgaña'ri, erritar guztiak enbarkatzeko "Canarias" gudontzia.
-Abaitua'ri, "España" torpedeatzeko submarino bat.
-Txomin'eri, lendakaritzan "entxufe" bat.
-Laxaro'ri "txofertzako karneta" eta belbil bat.
-Indalexi eta Imanol´eri, "Eguna" saltzeko kamioi bana.
-Alejandro'ri, idazteko ingi moltzo bat.
-Leonardo'ri, idazkaritza bat.
-Landa'ri, Santoña'ra juateko "motor" bat.
-Iriondo alkate-ordekua'ri, Astigarraga burtzain duala ibiltzeko tribuliña.
-Esteban'eri, "abrigo dempiel" bat.
-Patxiko-kaleri, txapelerako izarrak eta pikatxoi bat.
-Evaristo'ri, bizartegia jartzeko gelatxo bat.
-Erregiok Donibane-Loitzun aldera ta Bartzelonara ere eldu dirala jakin det: Nikaxio eta Felix'eri bildur gabe Bilbo'ratu ditezen "Euzkadi" egazkiña eskuratu dietela esan didate.
-Aristondo eta Lekonde'ri, Bartzelona'tik onuntz etortzeko "submarino" bat.
Eta onetxekin amaitzen det gaurko lerrokada. Ikusi dugunez berebiziko besuzak ekarri dikie batzu-batzuei Erregiak. Zorionak beraz eta beste bat arte.

**Mandazketa**
(Alejandro Mendizabal)

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359



## BALDARI OMENALDIA ALKOLEA-INTXIRRIK



Gipuzkoako kostaldeko kirol-arrantza elkarteek udan zehar atun-arrainak markatzen jarduten dute helburu zientifikoetarako. Garai bukaeran jaialdia egiten dute, eta aurten Mutrikun egin dute, ehundik gora lagun batuta. Ekitaldi ezin hobea aukeratu zuten Alkolea-Intxirriko lagunek Baldari omenaldi beroa egiteko. Hamaika istorio gogoratu ahal izan zituzten bertaratuek ekitaldirako prestatutako argazki emanaldian. Baldaren txoriak, Baldaren arrainak, Baldaren patxak, Baldaren txibi erraldoia... Baldaren lagunen artean. Baldaren familiari besarkada estu bat, eta Baldaren moilako lagun guztiei ere bai, lagun bat joan da eta. Argazkian, Jon anaia eta Unai arrantza-laguna, omena jasotzen.

## 2018 URTERAKO HARPIDETZA EGIN

Herritik kanpo bizi diren mutrikuarrek, eta beste edonork ere bai, noski, Kalaputxi etxean postaz jasotzeko aukera izango dute 2018 urtean ere.

Horretarako, ***jasotzailearen izen-abizenak***, aldizkaria jasotzeko ***helbidea***, eta dagokion kopurua KARENKA KOMUNIKAZIO ELKARTEAren izenean ordaindu izanaren ***ordainagiria***ren kopia hauetako helbide batera bidali:

Kutxa: ES80 2095 5056 13 1070996938
Laborala: ES70 3035 0188 91 1880017087

Postaz: Kalaputxi aldizkaria
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku

E-mailez: kalaputxi2001@gmail.com

Tarifak: Estatura, 15 euro
Europara, 25 euro
Mundura, 50 euro

adats
ANDONILARREA
943 60 39 45 - Barrenkale 1

## ARRAUN TALDEAK ENTRENATZAILE BERRIA

Moila aldetik datoz berriz ere berriak. Traineruan egindako lehenengo denboraldia arrakastatsutzat jo ondoren, denboraldi berria prestatzen hasita daude Arraun Taldeko zuzendaritzako kideak, eta materialak berritzeko egindako esfortzua eginda, giza baliabideetan ere ahalegina egin nahi zuten, gazteen maila indartzeko. Erdi txantxetan hasita, gero eta serioago hartu zitzaion gaiari eta, azkenean, Mutriku Arraun Taldeak entrenatzaile berria izango du 2018 urtean. Erronkazalea, gazteekin eta talde berriekin lan egitea oso gustoko duen entrenatzailea izango da mutrikuarrak gidatzen: Jose Luis Korta. Aurkezpena *Bar Puerto*n egingo dute urteko azken ostegunean, arratsaldeko 6etan.

## ESKERRIK ASKO LAGUNTZAGATIK

Elikagaien Bankuko Mutrikuko ordezkariek eskerrak eman nahi dizkiete 2017 urteko Gabonen aurreko kanpainan parte hartu duten guztiei, merkatariak izan zein erosleak izan. Izan ere, urte berri batez, mutrikuarrak portatu egin baitira egindako ahaleginean: Herrian 1.280 kilo janari batu dira eta 1.119,15 euro jaki freskoak erosteko. Ahalegin horri esker, herriko hainbat familiarentzat Gabonak ez dira hain gogorrak izango. Laguntza ematen jardun duten 26 boluntarioei esker bereziak eman nahi dizkiete Bankukoek, bereziki Manolo Iñarrari, kamioiarekin eta lokalarekin emandako laguntza ordain ezinagatik.Eta eskerrak Elikagaien Bankuko kide guztiei ere eman behar zaizkie. Eskerrik asko zuei ere!

## BURUMENDIK MENDI-IRTEERA BERRIAK

Aspaldikoak ditu Burumendi Mendi Elkarteak umeei eskainitako mendi-irteerak, gazteenei gure herriko bazterrak erakutsi eta familiei ibilaldi ederrak eskaintzeko. Aurtengoan, mutrikuar gazteekin batera, Zumarragatik etorritako Lasalle eskolako umeak izan ziren gurasoekin batera herriko mendi-txokoak ezagutzera.

Bestalde, Bururumendiko lagunek adierazi dute Urte Berri egunean Arnora igotzen denak mokadutxoa egiteko aukera izango duela errefugixoan, aspaldiko ohiturari jarraiki. Bejondeizuela, mendizaleak zaintzen dituzuen mendizaleok!



## ERDIKO KALEAN OBRAK

Mutrikuko Udala urtarrilean Erdiko kalen obrak hasiko ditu harlauzak ipintzeko, Barrenkalen hasitakoari jarraiki. Bide batez, lurzorua zabaldu behar denez, lur azpiko kanalizazioak berritzeko aukera aprobetxatuko da. Uraren eta saneamenduaren hodiak berrituko dira, eta gasaren hodi nagusia ere sartuko da. Herrigune Historikoko bizilagunentzat interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuak sartzea errazagoa izan dadin, gainera, hodi hutsak ere sartuko dira, bihar-etzirako. Lanak hilabete batzuetan luzatuko dira eta herritarrei zein merkatariei ahalik eta kalterik txikiena sortuko zaie.

**Irudi Korporatiboa:**
Logotipoa
Administrazio paperak
Esku-gida korporatiboak
...

**Argitalpen grafikoa:**
Liburuxkak
Katalogoak
Aldizkariak
Liburuak
Kartelak
Iragarkiak
...

**Web diseinua:**
Web orri korporatiboak
Orri dinamikoak (kontrol taula)
Online dendak
Intranetak eta estranetak
Blogak
...

www.euskalinpri.com

EUSKALINPRI
Soluzio grafikoak

**Nuria Vázquez**
Diseinu eta komertzial saila
M. 659 45 36 57
nuria.vazquez@euskalinpri.com

**Euskalinpri Inprimategia**
Ifar kale 7 behea
20820 Deba
T. 943 19 20 36
inprenta@euskalinpri.com


## SAN SILBESTRE EGUNEAN, KORRIKA

Urteari agur esateko era ezberdinak hartzen ditu jendeak. Batzuek mendi tontorrak hartzen dituzte jomuga, beste batzuek afari-bazkariak...

Azken urteetako ohiturari jarraituz, herriko korrikalariak Goiko plazan elkartuko dira eta urteari agur esateko korrika aldi herrikoia egingo dute herrian zehar.

Adin guztietako korrikazaleak jantzi eta mozorro koloretsuz jantzita Goiko plazatik abiztuko dira eta, herriguneko kaleak alaitu ondoren, Goiko plazara itzuliko dira egurdian jai-giroan montxorra egitera.

Urteko korrikaldi neketsuak, Behobia-donostiak eta maratoiak atzean utzita, lagun artean urteko azken korrika saioa egiteko aukera paregabea!






## ESK

Elikagaien B




## KOFRADIA ZAHARRA

Udaberriko larunbat goiz batez mutrikuar guztion bihotzak zartatu egin ziren Kofradi Zaharrak suak hartu zuela entzutean. Hilabeteak joan hilabeteak etorri, Kofradia zaharreko eraikinak hor dirau, ikutu gabe, eta kofradiko moila ere, sekuestratuta, herritarrek ezin gozatuta. Erre ondorengo hilabeteetan Eusko Jaurlaritzako Portuen zuzendaritzak egin zituen bilerak udalarekin, baina gaur arte. Aseguru kontuak daudela, aurrekontukoak... Kontuak kontu, moila itxita eta eraikina hor egonean.

Ordutik hona, *Kofradiaren Lagunak* herri mugimendua ere sortu da Kofradia Zaharraren eraikinean bentalekua berreraiki eta museoa egiteko ideiari lotuta, eta udal ekimena ere bultzatu du *EHBilduk* Eusko Jaurlaritzari gaiari heltzeko eskatzeko eta Mutrikuko herriak gai honetan duen iritzia herri galdeketa bidez ezagutzeko prozesua abiatzeko. Ea urte berriak berri berririk dakarren.

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
*Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...*
Tel. **943 60 44 10** / **670 41 42 23 - 24**
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

# ZENBATEAN ERABILTZEN DUGU EUSKARA MUTRIKUN ETA INGURUETAN?

## EUSKARAREN EZAGUTZA MAILA, 2011 URTEKO DATUAK

| | MARKINA | BERRITXU | ONDARROA | MUTRIKU | DEBA | ELGOIBAR | EIBAR |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EUSKALDUNAK | 79 | 82 | 79 | 81 | 75 | 58 | 51 |
| AMA HIZKUNTZA. EUSKARA | 69 | 71 | 70 | 71 | 62 | 41 | 33 |
| ETXEAN EUSK. | 60 | 65 | 64 | 57 | 49 | 30 | 20 |

## EUSKARAREN ERABILERA KALEAN, 2017 URTEKO DATUAK

| | MARKINA | BERRITXU | ONDARROA | MUTRIKU | DEBA | ELGOIBAR | EIBAR |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EUSKARAZ | 78 | 85 | 79 | 78 | 49 | 36 | 22 |
| GAZTELERAZ | | | | | | | |
| BESTE | | | | | | | |

## KALEAN JASO DIREN ELKARRIZKETAK, 2017 URTEKO DATUAK

| | 2 - 15 | 16 - 24 | 25 - 65 | 65 > | |
|---|---|---|---|---|---|
| EUSKARAZ | | | | | |
| GAZTELERAZ | | | | | |
| BESTE | | | | | |

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrildea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia



AMAIA GOENAGA REBIRTHING
NORBERARENGANAKO BIDEA, BIHOTZERAINO
ARNASKETA ZIRKULAR BATEN BITARTEZ, KONTZIENTEA ETA KONEKTATUA.
TERAPIA ENERGETIKOA
IRATXE MASAJE ZENTROA · TXURRUKA TENIENTEAK, 25 · TEL. 690 94 91 97

# KIROLAZ BIZI, HAZI ETA IKASI

**Bere ibilbidearen norabidea zuzenduko duen lema tinko jarrita dauka Ainhoak. Kirolak eta jarduera fisikoak marraztu duten ibilbide hori irakaskuntzarantz bideratu nahi du, gainera. Bere azterlanak zein kezkak ere horren ingurukoak dira. Azkena, Eskola kirolaren gainean egin duen azterlana. Gaztea den arren, Ainhoa Mugerza Salegik (1990) ibilbide luzea egin du kirola eta jarduera fisikoaren inguruan. Mendaron jaioa, bederatzi urte zituela Mutrikura etorri zen bizitzera. Dantza soltean hasi, eta eskubaloiarekin jarraitu zuen. Gipuzkoako zein Euskal Selekzioko eskubaloi taldeekin aritu zen, eta bere ikasketak jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien lizentziaturan burutu zituen.**

**Nola hasi zenuen kirol ibilbidea?**

Mendaron bizi nintzela euskal dantza soltean ikasi nuen, eta Mutrikura bizitzera etortzean soltekoa Gure Ametsa dantza taldeko dantzekin bateratu nuen. Institutuan hastearekin batera eskubaloian hasi nintzen: Mikel Mariezkurrena genuen entrenatzaile, aurretik ere berarekin arraunean ibiliak ginen. Eta Batxilergoan, Elgoibarko eskubaloi taldera joan nintzen. Ustekabean, Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioetatik deitu ninduten, eta baita txapelketetan parte hartu ere. Garai hartan, ordea, JFKZ-IVEF ikasketak egitea erabaki nuen, eta Gasteizen bizitzen nengoenez zaila egiten zitzaidan Elgoibarra entrenatzera joaten jarraitzea, baita Akaba Bera-Berak orduan eskainitako aukera aprobetxatuaz Donostiara entrenatzera joatea ere. Momentuan ez nion garrantzirik eman; ikasketetan zentratzea erabaki, eta Gasteizen jarraitu nuen.

**Gaur egun ere jarraitzen duzu eskubaloian...**

Bai, gaur egun eskubaloiko nesken infantil taldea entrenatzen dut. Oso gustura nabil, asko betetzen nauen jarduera bat da, eta lan teknikoa egiteko aukera ere ematen du horrelako talde batek. Jokalarien zein lagundu eta animatzera etortzen direnen artean giro polita sortu delakoan nago. Gainera, bada Jaujaren sorrerako taldean jokatu zuen gurasorik ere. Gu hasi ginen bezalaxe, ilusioz dabilen taldea ikusten dut, eta horrek izugarri pozten nau. Ea horrela jarraitzen dugun! Eskubaloiak asko eman dit, hori dela eta, gazteei ere gauza bera transmititzea gustatuko litzaidake.

**Ikasketak Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zientzietan oinarritua, ezta?**

Ikasketak hautatzeko momentuan, kirolean murgilduta nengoen, eta horrek eraginda IVEF egiteko hautua egin nuen. IVEFeko ikasketak amaitu ondoren, nire ibilbide profesionala irakaskuntzara bideratzea erabaki nuen, eta Gorputz Hezkuntzako irakaskuntzako masterra egin nuen Eskola Kiroleko lanarekin uztartuz. Gaur egun, Haurtzaro eta Nerabezaroan esku-hartze sistematikoko masterra egiten ari naiz Donostian; hezitzailearen ikuspegia gehiago sakontzeko asmoarekin.

**Noiz hasi zinen Eskola Kirolean?**

2012an hasi nintzen Mutrikuko Eskola Kirolean, baja bat betetzeko asmoz. Ondoren, bertan jarraitzeko aukera izan nuen, eta oso gustura aritu naiz urte horietan. Asko ikasteko aukera eskaini dit, eta haurrekin jarduteak asko aberastu nau. Egia da, aldaketa baten beharra sumatzen nuela eta aurtengo ikasturtean lana uztea erabaki nuen.

**Eskola Kirolaren inguruan egin duzu azterlana; zergatik?**

Aurreko ikasturtean Kirol Hezitzaileentzako prestakuntza ikastaro bat egin nuen. Ikasturte amaierako lana egin behar zela-eta, nire lana Mutrikuko Eskola Kirolean oinarritzea pentsatu nuen. Azterlan horrek Eskola Kirolarekiko eragile ezberdinen iritzi eta ikuspegiak jasotzeko aukera eskaintzen zuen. Horren guztiaren helburua Eskola Kirolar ekarpena egitea eta eragitea izan da, erabakiak Eskola Kiroleko mahaiaren esku gelditua, noski.

**Azterlan hori egin ondoren, zein ondorio atera duzu?**

Lanaren ondorio nagusia, hausnarketa baten beharra dagoela: bertan eskaintzen diren kirolak eskaintzeko arrazoiak pentsatu, nola lantzen diren eta zertarako lantzen diren hizpide hartuta. Urteko eskaintza horretan herrian ditugun kirol aukerak kontutan izan beharko genituzke, batez ere infantil kategoriatik aurrera gazteek kirolean jarraitu dezaten. Horrez gain, Kirol anitzeko edo ohikoa

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

den programaziotik kanpo, ez ohikoa edo osagarria den programazio bat eskaintzen da. Bertan, jarduera hauek lantzen dira: Aerobika, gimnasia erritmikoa, baleta, judoa, xakea eta tenisa. Jarduera horietan izena emanda dauden haurrak ere Eskola Kiroleko ohiko programazioan parte hartzen dute. Kirol eskaintzaren barnean, ohiko eta ez-ohiko programetan neska eta mutilen parte-hartzearen inguruko datuak aztertzea egokia litzateke, eta horien helburua zein den argi izatea; besteak beste, genero ikuspegiari begira.

**Zeintzuk proposamen aurkezten dituzu?**

Aldaketak beharrezkoak dira Eskola Kirolaren garapena emateko, nahiz eta aldaketek beti ere esfortzu bat eskatu. Alde batetik, ongi hausnartutako eta antolatutako urteko programa eskaintzea egokia litzateke; kirol anitzeko programa indartuz eta aberastuz. Aste bukaeretako jardunaldietan lehiaketaz gain, topaketei ere lekua emanez Horretaz gain, ume eta gazteen kirol ibilbidea bermatuko duen programazio bat beharrezkoa dugu, benjamin eta alebin kategorietan kirol jarduerak banatzeko aukera emanda eta elkarteekin elkarlana indartzeko aukera zabalduaz. Bestalde, kirol hezitzaileen beharrizanen araberako formakuntza jarraituak jasotzea proposatzen da.

**Aurrera begira, zeintzuk asmo dituzu?**

Nire helburua irakasle lan egitea da eta orain arteko prestakuntza praktikara eramatea eremu horretan. Horri garrantzia ematearekin batera, kirola egiteko senari berriro ere heltzea da nire asmoa. Aldi berean, eskubaloiko taldearekin entrenatzaile jardutea.

**Zerbait nahiko zenuke esatea?**

Nire ibilbidearen inguruko gogoeta egin eta gero, eskerrak eman nahi dizkiet gurasoei, familiari zein lagunei, besteak beste, kirolarekiko eta ikasketekiko hartutako erabakiak errespetatu izan dizkidatelako, eta Mikel Mariezkurrenari ere bai, ibilbide berri batean murgiltzeko aukera eskaini zidalako. Horretaz gain, gazteei zuzenduko nintzaieke, ikasketei lehentasuna ematea garrantzitsua dela esateko, eta baita kirol praktikarekin jarraitzea ere gustura jardunez gero, kontua ondo planifikatu eta oreka bilatzean dagoela esango nieke.




PERRAS arrandegia
arratsaldez zabalik
(asteartetik ostiralera)
merkatu plaza
607 92 09 25

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

# Gerra aurreko saltakarixak

Gaur egunian, ohitxuta goz han eta hemen saltakarixen karrerak ikusten, herri krosak, maratoiak... Baiña ez eizue pentsau atzo goizeko kontua danik, e! Gerra aurretik ere mutrikuarrek gustora hartzen zitxuen saltakarixen txapelketak. Bai horixe!

**Saltaka, korrika, lasterka...**

Euskeraz hitz asko daukaguz ekintza hori izentatzeko, baiña Mutrikun zabalen dabillena SALTAKA da. Eta hortik datozenak: *saltaka egin* eta *saltakarixa*. Batek baiño gehixok igarriko zion honezkero jatorrixa, "saltoka". Mutrikun, oraindik ere, halaixe esaten dixue bakar batzuek: *saltoka*. Salto egitxia eta saltaka ibiltzia bat al dira, ba? Ez, baiña sasoi bateko mutrikuarrek oiñez baiño aburuago juateko mobimentu horri erreparatu eta hala geratu zan aditza: *saltaka*. Batzuek esango deue hitz hori erderatik datorrela, eta? *Korrika* ere bai, eta iñork ez deu horregaitxik baztertzen. Korrika, erderazko "correr" bezela, latiñetik dator: *curro, currere*.

Geure inguruko herri batzuetan salto egitxiari baiño azkar juatiari eman zixuen garrantzia eta halaixe esaten dixue: *aringa-aringa* (Ondarrua), *ariñeketan* (Berritxu), *lasterka*... Saltaka gabiltzela aurreraka ere bagabiltzenez hori markatzen deue beste forma honek: *antxitxika* (Elgoibar), *antxitxiketan* (Eibar), *aintxintxika* (Bergara)... Horren jatorrixa: "aintzin-aintzin + -ka", hain zuzen ere 'aurreraka--aurreraka'.

Gaur hona, batez ere, gerra aurreko Mutrikuko berri edo notiziak ekarri ditxugu. Orduko prentsan izen saltsa ederra topau geinke *saltaka* esateko. Ikusi daiguzan:

Saltakarixa (edo korrikalarixa): antxikalaris (1916), saltokariak (1916), laixterkariak (1916), laisterkariak (1919, 1922), korrilakariak (1922), saltokalariak (1927).
Saltaka (edo korrika): saltaka (1922), antxi-antxika (1928).
Karreria edo lasterketa: antxintxiketa (1916), laisterkarien sariketa (1922), saltaka-jokua (1922, 1928), antxi-antxiketa (1928).

Ez da oraingo kontua bakarrik, gerra-aurrian ere mutrikuarrek euskeraz idazten zeuenian, askotan ez zaken batere garbi zein hitz aukeratu! Baiña holako kasuetan, ez euki zalantzarik, esan aburo-aburo —saltaka— egunero-egunero dabilzuen hitz hori eta asmatuko dezue, seguru!

**Saltaka jokuak**

Sasoi baten, San Iñazio egunian, beste proba askoren artian ezin zeiken faltau "saltaka jokua". 1916. urtian, esaterako, arratsaldeko pelota-partidua amaitxutakuan hiru saltakariren arteko desapixua egon zan Mutrikuko frontoian. Iturrino eta bigarren bat, Gaztañetaren kontra. Ia zeiñek lehenago eman 20 buelta frontoiari (danetara, 2.500 metro). Gaiñera, dirutxua zauan jokuan: 500 pezeta! Gitxigaitxik izan bazan ere, bikotiak irabazi zoan, metro bakarragaitxik!! Hola jaso zoan orduko prentsak: "*antxintxiketa izugarria, Gaztañeta sonatuak beste bi gazteri pelota-tokian zeñek lenago eman ogei jira, bikotiak amarna*".

1919. urtian, berriz, pixka bat lehenago egin zeuen probia, uztaillaren 27xan. Orduan ere arratsaldeko partiduaren ondoren izan zan. Hola iragarri zoan egun batzuk lehenago Arno-Mendik Euzkadi egunkarixan: "*ondoren izango dira laisterkarien sariak, izanik bidia ogei jun-etorri pelota--plazari, eta sariak dira amabost eta amar ogerleko*". Bistan do, desapixuetan baiño askozaz diru gitxio zauan tartian holakuetan: 75 eta 50 pezeta.

1922. urteko San Iñazio egunian bi proba ezberdin egon ziran. Batetik, "*aizkora-saltaka jokua": "egin biar zuten biña enbor ebaki ta zeiari (plazari) amar ostera eman, izanik Manuel Apatei eta Gaztañeta, biak batera ebaki zituzten baña saltaka asita bigarren osteran Apategi ondua jota gelditu zan*". Bestetik, aurreko probia amaitxuta, "laisterkarien sariketa" etorri zan. Parte-hartzailliak, Apatei, Osoro eta Euzkitxako morroia. Sari honek jaso zitxuen: "*Lenenguak, urrezko domiña, bigarrenak bizar--kentzeko tramankulua, irugarrenak zorro bat txokor ta domiña eder bat*".

Baiña San Iñazio egunian bakarrik ez, Malenetan ere saltakari edo korrikalarixak egoten ziran. 1922. urtian

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

bertan, konparaziotarako, hiru sari banatu ziran: lehelengua *Gorriña*k irabazi zoan (14 ogerleko), bigarrena *Apategi*k (8 ogerleko) eta hirugarrena kanpoko batek (5 ogerleko).

1928ko San Iñazio egunian ere saltakarixak egon ziran. Dantzarixen ostian, bi lagunek jardun zeuen bakar baten kontra. *Aberri*k haren berri zela eman zoan irakurritxa, bistan do mutrikuarren gustokuak zirala saltakarixak: "*Irten ziran gero pelota-tokiari ogei bira ematera antxi--antxika Elgoibar'ko Etxe-zuri emengo bi gazteri. Oso polita izan zan une au ere*".

Urte hartan, abuztuko azken domekan (26xan), beste *saltaka joko* bat egon zan: "*Tetuan"dik asita Katetxera saltaka joku polit bat*". Jende asko hurreratu ei zan bata eta bestia animatzera. Frontoiko 20 buelta baiño gehixo orduan: 4 kilometro eta 800 metro. Hiru sari egon ziran. Lehelengua Jose Galdosek lortu zoan (5 ogerleko). 15 miñutu eta 55 segundu bihar izan zitxuan juan-etorrixa osatzeko. Bigarren sarixa Juan Jose Iparragirrek eskuratu zoan, eta hirugarren tokixan Iñazio Agirre aillegatu zan.

1935. urteko Malen egunian, goizeko hamarretan, saltaka jokua egon zan. Hola iragarri zoan, bezperan, "El Día" egunkarixak: "*Carrera pedestre. Salida de la Plaza Churruca, Txambolingua, Mauleón, calle Puerto, Muelle, Camiño berri, Aitzokale, Subida Achachin, Bajada Achachin, Vice-almirante y llegada en la Plaza Churruca, habiendo en la subida a Achachin una prima de cinco pesetas y siendo los premios de 20, 15 y 10 pesetas*".

**Desapixuan, zenbatgarren?**

Esan degun bezela, saltakarixak batzuetan Mutrikuko Udalak (Malenetan) eta bestetan Batzokixak (San Iñazio egunian) jartzen zitxuen sarixak irabazteko asmoz ematen zeuen izena; beste batzuetan, berriz, alkarri desapixua egin eta bi lagunen artian jarduten zeuen, dirutxo bat jarritxa.

Anjel Osoro "Aberri" idazliaren anaixa ere saltakari ezaguna izan zan Mutrikun: Patxiko Mari Osoro "Pagatza". Gazte denboran, halako baten, Malenetan saltaka jarduteko desapixua bota zion Patxi Urkiri "Gaztañeta" Mutrikuko saltakarixari. Egin deue karreria eta hara nun dijuan Patxiko Mari etxera; amak galdetu dio, *ze, amaitxu dezu karreria?* Bai, ama. *Ta, zenbatgarren aillatu zera, ba?* Bigarren. *Ene, bigarren..., asko!! Zenbat lagun ziñaten, ba?* Bi, ama.

Batzuetan, diru kopuru haundixak jokatzen ziran. Ez bakarrik kirol hontan, jakiña. Postura eta desapixuetako jokua segurua ez zala esplikatzeko, oraindio ere, esaera hau entzun leike Mutrikun: "*Jokua ez da errenta, hobio da oillaskua erreta!*".

Gerra ondoren ere segitxu zeuen desapixuek. Hona hemen desapixoka ibiltzen ziran saltakari ezagunenak: aitxatu degun Patxi Urkiri "Gaztañeta", Maldomiñ baserriko Jesús Alkorta eta Patxiko Txurruka "Beliotegi". Oraindik ere, Jesús "Maldomin" zanaren famelixakuek goguan dake euren etxekuak Patxiko "Beliotegi"ren kontrako desapixua irabazi zoanekua.

**Josu Larrañaga Arrieta**



BARE - BARE
gosariak, pintxoak, bokatak...
GABON ZORION eta URTE BERRI ON!

GOTZON ARRANDEGIA
Gabon zoriontsu eta urte berri on!
Gotzon Eizagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

# hamaika amets, hamaika urrats

## ABENDUA, OPARI SASOIA

Hona hemen zerrenda bat material eder batekin, betaurreko lilekin begiratuak, neska-mutilekin patxadaz hitzegitea eragiten dutenak, galdera-erantzunak sortzekoak, harremanak sendotzekoak, dibertitzeko balio dutenak, ikasteko zaletasuna areagotzeko, hizkuntzaz gozatzeko, pentsatzeko, amesteko eta sortzeko balio dutenak, besteak beste. Helduentzat ere pailsaia euskaldun-tzeko, komunikabideak indartzeko, sormena eragiteko... Zertzelada bazuk hemen:

**MUSIKA**

"MAITTE MAITTE Negar eta barre/munduan urte bete" Musika, hitzak eta irudiak.

JIRA-BUELTAN. 50 kanta eta jolas. Badihardugu Elkartia.

**LIBURUAK**

ZEIN KOLORETAKOA DA MUSU BAT? Liburua. Patxi Zubizarreta itzultzailea

ARRAROA. Liburua. Pamiela

TIGRE BATEKIN BIZI. Album ilustratua. Harkaitz Cano

**JOKOAK**

TEATRILOA Txontxongiloekin jolasteko. Istorioak asmatzeko.

MAHAI JOKOAK: URKATUA. Asmatu hitza. NOR ZARA Zu? Ikastolen Elkartea.

MEMORIA JOKOA. Ttartalo

**IKUS-ENTZUNEKOAK**

NAHASPIZTEGIA Liburu interaktiboa. Historia aurreko animaliei buruzkoa. SM-kasmina.

EGIPTOMANIA Liburu interaktiboa. Miren Agur Meabe itzutzailea. Ttartalo.

LEHENENGO ORDENAGAILUA. Animaliak. Ikastolen Elkartea.

DVD bideoa. NUR herensugearen tenploan.

**BESTE**

GAZTEZULO Aldizkaria gazteentzat (Twiter, Instagram, Facebook eta paperean eskuragarri)

BERRIAlaguna izateko opariak egin. AGENDA eta EGUTEGIAK erosi. Zientoka gauza! Ez dagoelako ez da izango behintzat.

HAUR, GAZTE, ADINDU ETA ZAHARRENTZAT, OPARIAK EUSKERAZ!

**baitxoelkartia@gmail.com**

betaurreko lilak

## PUBLIZITATEA

### «Gazte gehienak ez dira gai publizitatean dagoen sexismoa antzemateko».

Horixe da Berrian Pablo Vidali egindako elkarrizketa baten izenburua. Ikerlari eta EHUko irakasle honek dioenez, "Nerabeak, sexismoa eta publizitatea" ikerketaren ondorioak deigarriak dira: gazteen %35ek ontzat ematen dituzte mezu sexistak, eta horien %10ek baita emakumeen aurkako indarkeria ere.

OSO GOIZ garatzen dute neska-mutilek ezagutza, ikasi eta espresatu egiten dute jolas eta jokuen bitartez. Jolasean neska-mutilak bizipenak erreflejatzen dituzte, hurbilekoen ereduak imitatu, jokaerak, jarrerak nahiz abilidadeak praktikatu, eta nortasuna eraiki.

ESTEREOTIPOZ BETETA DAUDE PUBLIZITATE KANPAINAK, rol klasikoen ideiekin bonbardatzen gaituzte, eta horrek eragina dauka! Geuri dagokigu mezu horiekin kritikoak izatea, salatzea, eta, gutxienez, gure erabakietan eraginik izan ez dezan saiatzea. Ez da zaila kontsumismoaren zurrunbiloan erortzea, Jostailuak eta jokoak erosterakoan irizpide batzuk izate aldera geure buruari galdera batzuk egitea komeni:

- Jostailu honekin nornahik, neska zein mutil izan, jolastu ahal du?
- Eredu sexistak eta indarkeria bultzatzen al du?
- Komunikazioa eta berdinen arteko harremana indartzen al du?
- Lagunartekotasuna ala konpetentzia bultzatzen du?
- Helburua ondo pasatzea bada, dibertigarria al da, jolaserako gogoa pizten al du?
- Irudimena eta ikasteko gogoa areagotzen du?
- Denak erabiltzeko modukoa da, inor alboan utzi gabe? Gaurko umeak (mutil ausarta? neska menpekoa?) biharko gizarteko protagonistak izango dira.

HEZKIDETZA da bidea, beste eredu sozial bat posible da! Eta DENON esku dago!

**emakumeakmutrikunabian@gmail.com**

# ETXEAN ETA BIZIRIK BEHAR DITUGU!

2017ko abendua iritsi da eta beste urte bete pasa dela konturatzen gara. Zoritxarrez, duela 365 egun hauetan, Euskal Herriak dituen preso eta iheslari politikoen egoerak berdinetan jarraitzen du. Espainiako kartzeletan 234 preso ditugu, 62 frantziar estatuan, 3 nazioarteko estatu desberdinetan. Sara Majarenas eta bere alaba Izar, zentru tutelatu batean, 2 Euskal Herriko espetxeetan eta beste 2 espetxe arinduan.

Hauetatik, 24 presok 60 urte baino gehiago dute, 34k 20 urte baino gehiago daramatzate askatasunik gabe eta 14 larriki gaixo daude, horien artean Ibon Iparragirre ondarrutarra, oso egoera larrian. Beraien familia eta lagunengandik urrun denbora luzean dauden iheslari eta deportatuek ere, beste urte bete pasa dute herritik kanpo. Uztailean Kepa del Hoyo hil zen Badajozeko kartzelan bere etxetik 720 km-ra eta urtearen bukaeran Belen Gonzalezek eta Javi Perez de Nanclaresek utzi gintuzten.

Espetxeetako krudelkeriak eta urte luzeetako zigorrak eragiten dituzten gaixotasunez gain, genero indarkeria eta matxismoaren islada ere badira kartzelak. Majatzetik, Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujika isolamenduan daude Granadako Alboloteko kartzelan. Zergatik? Beste hainbat espetxetan gertatzen den legez, hangoan ere emakumeek ezin dute lan egin soldata baten truke, lan-ordaindua gizonezkoentzat soilik baimentzen delako. Emakumeek garbitegi eta sukalde edota komunen garbiketa-lanak egitera behartzen dituzte, emakume izate hutsagatik, eta gainera musu-truk. Agurtzane eta Ainhoari isolamendu erregimena aplikatu diete; 9. Moduluan dauden emakume presoak komunak garbitzeko betebeharra izatearen kontrako jarrera agertzeagatik zigortuak izan dira, lan horiek egitera, bestetik, gizonezkoak ez direnean behartzen.

Euskal presoen kolektiboari ezartzen zaizkion salbuespen politikaz gain, emakume izatea beste estigma bat da beraientzat, emakume izateagatik zigor bikoitza betetzen dute eta Espainiako espetxeetako bizi baldintzak zakarragoak dira, non, gainera, ideologia patriarkal eta matxistaren biktima diren.

Sara Majarenas eta bere alaba Izar ere giza eskubideen parametroetatik kanpo dauden biktimak dira eta elkarrekin izan arren, haien etxean, libre, egon beharko lirateke lehenbailehen. Sakabanaketak, 400 kotxe istripu inguru utzi ditu euskal preso politikoen senide eta lagunen artean. Urrunketak 16 hildako eragin ditu, aitortuak izan ez diren 16 biktima.

Egoera gordin hau salatzeko eta guztiekin elkartasuna adierazteko, hainbat ekintza antolatu dira. Parisen 11.000 lagun elkartu dira “Orain presoak” lelopean, eta datozen egunetan Mutrikun ere izango gara:

- Santo Tomas azokan, abenduaren 16an, 13:00ean elkarretaratzea Goiko plazan.
- Abenduaren 24an Olentzerori lagunduz, kalejira Zubixatik 19:00etan.
- Abenduaren 31n, 19:00etan Giza katea Goiko plazatik abiatuta eta ondoren Preso eta iheslari eta deportatu politikoen aldeko topa Beheko plazan.
- Urtarrilaren 13an, denok Bilbora!



# Bizitzan ez dagoelako agurrik, estatus aldaketak baizik

Urte amaiera gainean dugu eta ‘Bi erronbo eta erdi’ izeneko atal honen atzean egon garen ‘Sexuenea’ taldearentzat ere ziklo baten amaiera. Ez larritu, gure on-line espazioak aurrera egingo du, ez ordea herri kuttun honetako aldizkarian dugun txoko honetako parte-hartzea. Baina, lasai egon, ‘haustura baketsua’ izan da eta!

Badirudi atzo hasi ginela ‘gure lehen aldi’ harekin eta begira nora arte iritsi izan garen. 2012ko abendua zen. Orduan, Kalaputxi aldizkarian parte hartzearen erantzulea zen Norma Ageitos Urain Madriletik iritsi berria zegoen ia ikasturte osoko esperientzia izan ostean.

Ordutik, aldaketak egon dira txoko honetan freskotasunez eta kuriositatez betetako artikuluak sortzearen erantzule izan garenon artean, ordea, parte-hartzeko arrazoi nagusia oraindik ere herriarekiko gertutasuna mantentzen zuen Normak eta erraza zitzaion hilabetean behin hitz gutxi batzuk egongo zirela ziurtatzea.

Ia bost urte, ordea, ez dira hutsean pasatzen eta urte hauetako esperientzia gozagarri honen ostean, orain jada singularrean hitz eginda, nik, Norma Ageitos Urainek, ‘agur’ baino ‘gero arte’ esan behar dut berriz. Eta, berriro ere, Madrilek du errua.

Oroitzen dut oraindik 2012ko apirilean Kalaputxik egindako elkarrizketa, oraindik ere sexologia ikasten nengoela eta orduan jada Madrili buruz esaten nituen hitzak. Patua horrelako apetatsua da eta bueltan narama berriz ere. Aldaketa honen arrazoiak jada nire gertukoenentzat utzi nahi ditut.

Dena den, esango duzue, istorioa erdizka kontatuko badigu, zergatik kontatzen digu hau guztia? Zergatik esan ‘Sexueneak’ ‘Bi erronbo eta erdi’ uzten duela eta arrazoia Norma joatea dela arrazoi guztiak ez badira partekatuko? Beti bezala, zerbait erakutsi nahian adibide inozo baten bitartez.

XXI. mendean gaude eta oso jende gutxik baieztatuko luke egun maitasuna betierekoa dela, baita hil eta osterakoa ere. Nahiz eta ezkontzean boto hori egiten dugun, askok onartzen dugu dibortzioa ere badagoela eta gertatu ahal zaigula. Ordea, hain argi badugu maitasuna amaikorra dela, zergatik hain gaizki bizi hausturak? Oraindik ere maitasun erromantikoaren gezurrak zainetaraino sartuak ditugulako, bai horixe!

Gutako askok jakin badakigu maitasuna bukatu egiten dela baina sentitu ere sentitzen dugu ideia hori ez zaigula ezertarako gustatzen. Hau, maitasun erromantikoaren ideiek defendatu bezala, maitasunaren ideia posesibo batekin konbinatzean, guztiz toxiko eta mingarria izan daiteke. Eta koktel honen ondorioak besterik ez dugu ikusten istiluz hain beteak dauden haustura hauetan.

Horregatik, beharrezkoa dugu ikuspegiz aldatzen joatea eta pentsatzea ez dela maitasuna agortzen, orain arte esan dudan bezala; maitasun motaz eta harreman ereduz aldatzera pasatzen garela baizik. Normala izango da denboraldi batean elkar-ikustea zaila izatea eta seguruenik, hausturak zenbat eta konpromiso handiagoa apurtu, orduan eta egoera kudeatzeko zailtasun gehiago izango dugu, baina honek ez ditzala aurretiaz bizitako momentu onak eta etorkizunean izan ditzakegunak agortu. Bikote harreman baten haustura ez delako agur bat, estatus aldaketa bat baizik.

Galderak edo zalantzak argitzeko: **sexuenea@gmail.com**

Nerea ile-apaindegia
Emakume zein gizonezkoentzako **ileapaindegi berria** Beheko plazan.
943 60 36 21
nereasolo@hotmail.com
**Animatu eta etorri ezagutzera!**

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU
943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

# BUELTAN GATOZ BERRIZ!



Kaixo txantxangorritxoak,

Ze pentsatzen zenduen, zuekin ahaztuta gozela?

Beharrezko opor luziak gozatu eta gero, indar eta gogo handiz gatoz berriz ere bueltan! Aurtengo ikasturtia, beste urtietakuakin alderatuta ezberdiña izango da. Ekintzak abenduan (Gabonetako oporrak), otsailian eta martxuan (Aste Santuak) izan arren, gauza berri eta sorpresa askorekin gatoz. Beraz, gorde ezazue zuen egutegixan tartetxo bat gurekin primeran pasatzeko.

Aurten ere, urtero lez, aurpegi ezagun eta berrixakin gatoz zuekin ondo pasatzeko eta hamaika abentura elkarrekin bizitzeko prest.

Horretaz gain, nahi deu azpimarratu Txantxangorri ez dala umiantzat bakarrik, gurasuok ere zuen tartetxua ere badakazuela eta horretako zuen iradokizun guztixak entzutzeko prest gozela.

Gurekin harremanetan jartzeko modu ezberdinak dakazue!

Email helbidea: txantxangorrixak@gmail.com
Facebook: Txantxangorri Aisialdi Taldea

GOGOZ ETORRI, ZUEN ZAIN GOZ TA!





Camping Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

oreka zentroa

Masajea eta osteopatia
Hitt entrenamendua
K-Stretch luzaketak
Posturologia
Enterenamendu planak

Oihana: 605 735 911 Jon: 696 675 665
gorputzoreka@gmail.com
Jose Maria Alzibar 12, behea - Mutriku

# ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK



**BEÑAT**
Azkenean iritsi zan abenduaren 8a! Zorionak eta muxu haundi bat etxeko danon partez!



**IREBER**
Zorionak! Abenduaren 14an gure printzesak 11 urte bete dituelako. Muxuak famikoen partez.



**PELLO eta NEREA**
Zorionak eta matxo haundi bat maitxe zaitxuztegun danon partez.



**AURO**
Zorionak gure lankide finari! Eutsi lan isil eder horri! Zure ondoan egotea guretzat oparia!



**MARGARITA eta JOSEBA**
Zorionak bikote! Abenduan urteak betetzen dituzuelako. Maitasun guztiarekin, etxekoak.



**NORA**
Zorionak! Segi holaxe... 10 muxu haundi amona eta atxonan partez!



**AMAIA**
Zorionak ama&ixeko!!! Ondo pasa ta patxo!! Etxekuak!



**NORA**
Zorionak! Asko matxe zaitxugu! muak! Lukenen partez bereziki! Ixeko&Osaba

**EGUBERRI ZORIONTSU**
eta
**URTE BERRI ON!**



**IREBER, EKAIN eta AXIER**
Zorionak hirukote! Mila kilo muxu zuentzat! Elgoibartik




**LARRAITZ eta NEREA**
Zorionak bikote! Ezin urtea amaitu zuei zorionak opa eta zuekin batera txokolatea jan gabe! Zuek prestatu, jango dugu ta!

**ZORIONTZEKO:** kalaputxi2001@gmail.com whatsapp 635748393


Ristorante AzkenEstxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak..)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

# Argazki Zaharrak



LARANGA AUZOA, 1950eko hamarkadan











1985 urteko elurtea




ANSORREGI oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Joseba Iñaki Eleizgarai

masajista eta osteopatia

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

# ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

| ABENDUA | | URTARRILA | |
|---|---|---|---|
| 22tik 24ra | Hiart Burgoa | 1etik 4ra | Hiart Burgoa |
| zapatu (25) goizean, Lon Apraiz | | 5etik 7ra | Amaia Zalduegi |
| 25etik 28ra | Lasuen-Elezgarai | zapatu (6) goizean, Lasuen-Elezgarai | |
| 29tik 31ra | Lon Apraiz | 8tik 11ra | Lon Apraiz |
| **Gauetan, egunero (22:00-00:00):** | | 12tik 14ra | Lasuen-Elezgarai |
| Pilar Etxeberria Botika | | 15etik 18ra | Amaia Zalduegi |
| Errosario kalea 26, Elgoibar | | 19tik 21era | Hiart Burgoa |
| **Gauetan, egunero (22:00-09:00):** | | zapatu (20) goizean, Lasuen-Elezgarai | |
| Idoia Lafuente Botika | | 22tik 25era | Lasuen-Elezgarai |
| Sostoatarren kalea 10, Eibar | | 26tik 28ra | Lon Apraiz |

# MENDI IRTEERAK

**urtarrilak 1**

**Arnora igoera**

Burumendi Mendi Elkartea

# ODOLA EMATEA

**otsailean**

Anbulatorioan

egitarauak eta deialdiak: **kalaputxi2001@gmail.com** edota **whatsappa 635748393**

# AGENDA

abenduak 24, domeka
**Olentzero kalez kale**

## Abendurock 2017

ABENDUAK 29

Laumono

abenduak 30, zapatua
**Bandaren Gabon kontzertua**
Zabielen, arratsaldeko 8etan

abenduak 31, domeka
**San Silbestre eguneko korrikaldia**

URTARRILAK 5,
Errege kabalgata

URTARRILAK 6,
umeen Meza nagusia
Errege magoak bertan direla

urtarrilak 21, domeka
**Nazareno eguneko Bandaren kontzertua**
Zabielen, eguerdiko 13:00etan

MAGIA JARDUNALDIAK

**URTARRILAK 21**

*TOR magoa*

18:00etan Zabielen

**URTARRILAK 28**

*Ilusioen asmatzaileak*

18:00etan Miruaitz frontoian





Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Edari biltegia

Inarrairaegi

Tel./faxa: 943603938 · Etxekoa: 943603893 · Sakelekoa: 609413306 · "Mendi azpi" · 20830 MUTRIKU

ANDONEGI

HONDEAKETAK S.L.



MUTRIKU
TEL. 635 73 69 57



ALKOLEA ARDOTEGIA

Jon Andoni Basurko Pagoaga

Tel.: 943 60 35 99
alkolea.edariak@gmail.com
Barrenkalea, 2 - behea 20830 Mutriku

Edariak eta gehiago...


EROSI
BERTAN
ZUK EGITEN DUZU
MUTRIKU
bertanmutriku.com
bertan
mutrikuko merkatarien elkartea
facebook.com/BertanMutriku
bertan
Mutrikuko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# LOREA Gourmet

## Gabonetan bete-betean asmatzeko!




Hegaluzea
oliba oliotan




Kantauriko antxoak
Estra Birgin oliba oliotan




Sardina txikiak
oliba oliotan




Muskuiluak
eskabetxean




Berberetxoak
era naturalean

www.loreagourmet.com